

Kirola

Amaia Araiztegi mallabitarrek paleta goman eta 'One Wall' modalitatean munduko txapelketa irabazi du Kolonbian Patricia Espinarregaz batera. > 17



Euskaraldia ekimenak lehenengo pausoak eman ditu Durangaldean

Hizkuntza ohiturak aldatzea helburu duen ekimenari babesa agertu diote Durangaldean. Durangon, Elorrion eta Zaldibarren lan taldeak sortu gura dituzte ekimena dinamizatzeko. Bestalde, Soziolinguistika Klusterrak Durangoko euskararen erabileraren kale neurketako emaitzak eta ondorioak azalduko ditu, abenduaren 13an, 19:00etan, antzokian. > 2

“ Eskolan ez da eskolarako hezten, bizitzarako baino ”



Cesar Bona | Maisua eta idazlea > 10

Sortzaileen plazara begira

Durangoko Azokaren 52. edizioak atzo zabaldu zituen ateak. Horrela, domekara bitartean, Durango euskal kultur gintzaren eta sormenaren plaza izango da. Tartean, ehunka aurkezpen, kontzertu, mahai-inguru eta gogoeta egingo dituzte. > 14-15

Argazkia: Txelu Angoitia - Gerediaga Elkarte

ILARGI
ARGIGINTZA

Askatasun etorbidea 20 - DURANGO - Tel.: 946 812 492

ERABATEKO LIKIDAZIOA
denda itxiko dugu eta

RPS 155/17



HOBETU
Fisioterapia & Podología

info@hobetu.es
T/ 946 582 444

K/ Buzkantz kalea, 2
P.K./ 48230 Elorrio
www.hobetu.es

Durangaldea > 3

Airearen kalitatearen emaitzak emango ditu Eusko Jaurlaritzak laster

Zornotza > 9

Herritarren Arretarako Zerbitzua sortuko dute Aste Santurako

Durangaldea > 2

Gaueko aterpearen zerbitzua zabalteko hitzarmena sinatu dute

Elorrio > 5

Aurtengo odolosterik onena zein den erabakiko dute Buzkantz Jaian, bihar

Herririk herri

Euskaraldia egitasmoa lehenengo pausoak ematen ari da Durangaldean

Durangoko euskararen erabileraren kale neurketako emaitzak eta ondorioak aurkeztuko ditu Asier Basurto Soziolinguistika Klusterreko arduradunak abenduaren 13an, 19:00etan, Plateruena antzokian



Joan zen barikuan Euskaraldia aurkeztu zuten Durangon, Karrika antzerki taldearen laguntzagaz.

DURANGALDEA J. Guenetxea Euskaltzaleak aktibatzea helburu duen Euskaraldia egitasmoa lehen pausoak ematen ari da Durangaldean. Joan zen barikuan, Durangon aurkeztu zuten ekimena jendaurrean.

Hotzari aurre eginez, Andra Mariko elizpean hainbat euskaltzale bildu ziren egitasmoaren berri izateko. Ekitaldian, euskaldunok hainbat alditan bizi ditugun egoerak islatzen dituen antzezlanak taularatu zuten

Karrika antzerki taldeak. Ane Abanzabalegi AEK-ko kideak aurkezpenean azaldu zuenez, dagoeneko hainbat eragile batu dira egitasmoa (AEK, EHE, Berbaro, ANBOTO, Plateruena, Ibaizabal ikastola eta Durango-

ko Udala). "Baina, bide baten hasiera baino ez da hau, zerrenda handitzea da helburua. Jakizue guztiok zaudetela gonbidatuta", gaineratu zuen Abanzabalegi. Egitasmoan parte hartu ahal izateko eskuorriak banatu zituzten ekitaldiaren amaieran.

Ahobizi eta Belarriprest

Euskaraz hitz egin eta ulertzen duten herritarren arteko harremanean hizkuntza ohiturak aldatzea da Euskaraldiaren helburu nagusia. Horretarako, 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra, 11 egun euskaraz egitasmoan Ahobiziak eta Belarriprestak izatea da proposamena.

Ahobiziak euskaraz berba egiteko gai direnak dira, eta euren egunerokoan euskaraz berba egingo dutenak. Belarriprestak, berriz, euskara ulertzeko gai direnak dira. Ahobiziak euskaraz ari direnean Belarriprestek gaztelaniaz erantzun arren, euskaldunek hizkuntza ez aldatzeko konpromisoa hartuko dute. Baina egun horietan egitasmoak arrakasta izan dezan, urte osoko lana dago egiteko. Euskaraldiak dituen erron-

kak bideratzeko, Durangaldeko hainbat herritan batzordeak sortzea da asmoa. Elorrión, esaterako, herriko euskaltzaleek jarri dute jada hitzordua; abenduaren 14an, 19:00etan, Iturri kultur etxean. Euskaraldia herrian dinamizatuko duen lan talde anitza sortzea gura dute.

Zaldibarren ere egin gura dute batzarra. Motorrak berotzeko, Zuriñe Hildagoren eskutik solasaldi-kantaldia prestatu dute lehenengo ekitaldirako. Abenduaren 15ean izango da, 19:00etan, Gaztetxean.

Elorrión euskaltzaleek abenduaren 14an dute hitzordua, 19:00etan, Iturri kultur etxean

Klusterrearen aurkezpena

Soziolinguistika Klusterreko Durangoko euskararen erabileraren kale neurketak egin zituen, ekainean eta uztailean, Durangoko Udalak eskatuta. Ikerketa horren emaitzak eta ondorioak azalduko ditu Asier Basurto Soziolinguistika Klusterreko adituak, abenduaren 13an, 19:00etan, Plateruena kafe antzokian. Euskararen erabileraren inguruan Durangon mota honetako azterketa bat egiten den lehenengo aldia da hau. Ondorio horiekin, hurrengo urteetarako lan ildoak zehaztea izango da erronka.

Gaueko aterpean, gero eta zerbitzu handiagoa

Hitzarmena sinatu dute hainbat instituziok

DURANGALDEA M.O.

Etxebakoentzat aterpea eskaintzeko zerbitzua urte osora eta beste zonalde batzuetara hedatzeko hitzarmena sinatu zuten,

astelenean, Amankomunazgoak, Berriz, Mallabia, Zornotza eta Ermuako udalek, eta baita Lea Ibarra eta Lea Artibaiko mankomunitateek ere. Mar-

txoaren leian ipiniko da martxan zerbitzu berria; neguan hamar leku edukiko ditu, eta gainerako hileetan, bost.

Martxoaren 1era arte, Amankomunazgoak soilik bideratuko du zerbitzua, aurreko urteetan lez. Aterpea barikuan ipini zen martxan, Errota ostatuan, eta eguraldi txarraren eraginez kasik beteta egon zen. Barikuan hamar lagun egon ziren, eta zapatuan eta domekan, zortzi.



Amankomunazgoko egoitzan, Astolan, sinatu zuten hitzarmena.

anboto komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2017ko abenduaren 7a
16. urtea - 701. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
11.500 ale



Zuzendaria: Jone Guenetxea
Erredakzio burua: Markel Onaindia Txabarri.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Itxaso Martínez de Arenaza Yarza, Nagore Txintxurreta Isasi eta Alazne Salcedo Artetxe.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri, Maialen Zuazubiskar Gallastegi eta Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Airearen ikerketaren emaitzak emango ditu Jaurlaritzak laster

Durangoko dozena bat elkartek deituta, protestak egin zituzten joan zen barikuan eta atzo eguerdian

DURANGALDEA M. Onaindia
Ez da makala azken hileetan airearen kalitatearen inguruan sortu den kezka. Arnasten dugun aireak osasunean eragiten ote duen beldurra dute hainbat herritarrek. Usain txarraren salaketekin indartu zen kezka, datuen zabalpena etorri zen gero, sinadura bilketa hasi zuten... bada, orain, kalera heldu da ezinegon hori. Joan zen barikuan elkarretaratzea egin zuten Durangoko Andra Marian 100 bat lagunek, aire hobea eskatzeko eta instituzioei “erantzunak” exijitzeko. Durangoko dozena bat elkarte, alderdi, sindikatu eta auzo elkartek deitu zuten protestara, eta atzo ere gauza bera egin zuten, kasu honetan Durangoko Azokaren atarian. Deialdia bezala, elkarretaratze anitzak izan dira biak, eta horrek aparteko esangura eman die mobilizazioei.

Kexa eta protesten harira, hainbat datu publikatu ditu Durangoko Udalak, eta aurreratu du Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Saila ikerketa bat garatzen dabilela azken bi hileetan; Gabonak aurretik espero dituzte ikerketa horren emaitzak. Ikerketan daudenez, orain arte daturik ez publikatzea erabaki dutela

ere aipatu du udal gobernuak. Gainera, usain txarren keax ere bidali dizkiotela Jaurlaritzari azaldu du, eta beste herri batzuek ere berdin jokatu dutela jakitera eman du. Jaurlaritzak udalen elkarlana eskatu du

Jaurlaritzak udalen elkarlana eskatu du usain txar horien jatorria ezagutzen ahalegintzeko

Neurketa guztiak hartzea eskatu dute, “arazoaren iturburua zein den zehaztasunez jakiteko”

usain horien jatorria ezagutzen ahalegintzeko.

Momentuz behintzat, ikuspegi edo bertsio desberdinak daude herritarren eta instituzioen artean. Datu ofizialak eskuetan, airearen batezbesteko datuak onak direla diote instituzioek; egia da ere, batezbestekoez aparte, une batzuetan neurgailu ofizialek airearen maila ez dela ona izan erakutsi dutela. Bestal-



Atzo Durangoko Azokaren atarian egin zuten elkarretaratzea.



Andra Marian, barikuan, ahoan babesak ipinita zituztela.

de, instituzioek Europar Batasuneko indize mugak erabiltzen dituzte, Munduko Osasun Erakundeak aholkatzen dituenak baino malguagoak.

Protesta egin duten herritarrek, ostera, aire txarraren zenbait datu zabaldu dituzte sare sozialetan, eta eguneko une batzuetan neurgailuek ez du-

tela funtzionatzen salatu dute. “Beharrezko” neurketa guztiak hartzea eskatu dute, “arazoaren iturburua zein den ziurtasunez jakiteko”.

Airea ona dela zabaldu du Durangoko Udalak

“Oso ona, ona edo onargarria” da airea

Eusko Jaurlaritzaren datuak kontuan hartuta, Durangoko Udalak dio azken bi urteetan airea “oso ona, ona edo onargarria” izan dela egu-

nen %99an. PM2,5 partikulen atalean, iaz 12,5 mikrogramo metro kubiko bakoitzeko izan zen batezbestekoa, eta aurten 14koa. Europar Batasuneko

muga 25ean dago. Munduko Osasun Erakundeak, ostera, 10 mikrogramotan aholkatzen du muga ipintzea.

PM10 suspentsioko partikulen kasuan, aurtengo batezbestekoa 16 mikrogramotan dago momentuz, muga 40koa denean.

Udalak gogoratu du 2007an plan bat jarri zuela martxan, eta ordutik hona aireak hoberra egin duela.

Airea hobetzeko neurriak hartu dituzte Elorrion

Elorriko Txanberiko auzoan behin-behineko neurgailu bat jartzea eskatu zion udalak Jaurlaritzari apirilean —Elorrion ez dago neurgailu finkorik—. Gainera, auzoko Metal Smelting gal-

dategiari neurriak hartzeko eskatu zion; horiek martxan ipini ostean, aireak hobera egin du. PM10 partikulekin, maiatzean eta ekainean 12 egunetan airea ez zen ona izan; uztailan 3 egunera murriztu zen, abuztuan 2ra, eta irailean 1era.

Betsaide enpresaren inguruetan ere neurtu dute airea, baina oraindik ez dituzte datuak jaso.

MACOBER
MATERIAL DE CONSTRUCCIÓN
MACOBER

Eitua Industr., 66 BERRIZ
Tel.: 946 827 890

Tronperri kalea, 1 DURANGO
Tel.: 946 811 737

**Eraikuntzako materiala
Zeramika eta gresa**

Bulegorako zigituak
Fotolitoak

Betikoak
flexografía

946 202 241

Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

Bizkarra
Jatetxea

Urkiola auzoa, 4-6 ABADIÑO
Tel.: 946 812 026
burdi-kurutze@hotmail.com

**Gabonetan janaria prestatzeko astirik ez?
Guk lagunduko dizugu**
Etxera eramateko janaria, betikoa,
etxeokoren modukoa

Estatu osoan irisgarritasun ziurtagiririk gehien duen udalerrria da Durango

Herriko zortzi eraikinek dute ziurtagiria, eta, 2018ra begira, beste hirutan txertatu gura dute



Emparanza eta Irigoras erdian, eta udal beharginak euren alboetan, entrega ekitaldian.

DURANGO M. Onaindia
AENOR erakundeak Erabile-rraztasun Unibertsalaren Kudeaketa Sistemaren Ziurtagiria eman dio udalari, UNE 170001 arauaren arabera ezarria. Gaur egun Durangoko zortzi eraikinek dute irisgarritasun-sartzeko eta erabiltzeko egokia-ziurtagiria, eta horietako batean, Bizenta Mogel liburute-gian, egin zuten entrega ekital-

dia, barikuan. Hantxe azaldu-takoaren arabera, estatu osoan ziurtagiririk gehien duen uda-

Arazoak dituztenentzat espazioak egokitzea da udalak eraikin horietan duen helburua

lerria da Durango. Gorpil-aulkian sartzeko aukeraz aparte, ikusmen eta entzumen arazoak dituztenentzat espazioak egokitzea da udalak eraikin horietan duen helburua, besteak beste.

Hiru eraikin gehiago
2018ra begira, Hirugarren Adineko Etxeko, San Agustingo eta Durangoko Arte eta Historia Museoko diagnostikoak egingo

dituzte, horiek ere ziurtagiria jasotzeko bidean ipintzeko. Aintzane Bengoetxea udal apare-jadoreak azaldu zuen, gainera, dagoeneko ziurtagiria duten eraikinetan ere hobekuntzak egiten dituztela aldiro-aldiro.

“Bazterrean ez geratzea”
Aitziber Irigoras alkateak eraikinetako langileen ekarpena eskertu zuen, eurek baitira hobekuntzak egiteko adi daudenak egunerokoan. Neurriei esker, “inor bazterrean ez geratzea” da udalaren asmoa, alka-tearen berbetan.

Euskalduna jauregitik
AENOReko Luz Emparanzak nabarmendu zuen Durango dela estatuan ziurtagiririk gehien duen udalerrria, eta udal ardura-dunek eta beharginak egindako lana goraiatu zuen. Euskal Autonomia Erkidegoan, Guggenheim museoaren eta Euskalduna jauregiaren atzetik ekimenaren abangoardian dago Durango. Hain zuzen ere, Bengoetxeak azaldu zuen Euskalduna eredu lez hartu zutela ildo honetan hasi zirenean. Orain Durango ere bada erreferentzia, Zornotzatik aholku eske etorri zaizkielako.

Rap musikaren bidez, neska gazteak ahaldunduz

DURANGO M.O.

Durangoko Udalak eta Medicus Mundik elkarlanean antolatuta, emakume gazteentzako rap ikastaroa eskainiko dute urtarrilean, eta, horren bidez, neskek ahalduntzea da helburu nagusia. La Furia abeslariak emango du ikastaroa, urtarrilaren 2tik 5era bitartean, Andragunean. Dagoeneko eman ahal da izena, inskripzioa hasita baitago. Ikastaroan apuntatzeko, www.medicusmundibizkaia.org webgunean sartu behar da, eta ez da dirurik ordaindu behar.

La Furia abeslariak emango du ikastaroa, urtarrilaren 2tik 5era bitartean, Andragunean

Partaideen esperientzia eta ezagutzetatik abiatuta eta nazioarteko rap artisten eta emakume ekintzaileen adibideari jarraituta, bertaratzen diren gazteek ikuspegi feminista baliatuko dute abestiak sortzeko, La Furia abeslariaren erritmorra. Esaterako, gizartean dauden jarrera sexistak identifikatzea izango da euren zereginetako bat.

‘Neguan Olgetan’ egonaldirako inskripzioa martxan dago

DURANGO M.O.

Berbaro euskara elkarteak antolatuta, Neguan Olgetan aisialdi jardunaldia egingo dute Gabon bueltako oporraldian, umeak egun horietan dibertitu daitezten, euskaraz. Inskripzioa martxan dago, eta abenduaren 15era arte eman daiteke izena Berbaroren bulegoan. Asteleheneetik barikura bitartean egongo dira bertan, 09:30etik 13:30era eta 15:30etik 18:30era.

3 eta 10 urte bitarteko umeentzako topagunea izango da, eta Ibaizabal ikastolako instalazioetan garatuko da, aste bitan banatuta: hilaren 26tik 29ra eta urtarrilaren 2tik 5era. Astebeterako 65 euro ordainduko dute, eta birako 120. Berbaroko bazkideen kasuan, 50 eta 90 euro, hurrenez hurren.

Gabonetako Ludoteka antolatuko dute, lehenengoz

MALLABIA J.D.

Satxibu aisialdi taldeak eta Mallabiko Udalak Gabonetako Ludoteka antolatuko dute abenduaren 26tik 29ra, 4 eta 14 urte arteko gazteentzat. Ekimen hau antolatzen duten lehenengo aldia izango da. “Egun horietan ez da ezer askorik egoten herrian eta, bizitasuna emateko, ludoteka antolatzea pentsatu genuen”, adierazi dute Satxibu taldeko Ioritz Gisasolak eta Ibon Txurrukak. Ludoteka goizetan egingo dute, 09:30etik 13:30era.

Izen-ematea egiteko azken eguna abenduaren 14a izango da. Abenduaren 15ean, 19:00etan, gurasoak batzar batera deitu dituzte Kontzejuzarren. Ekimen berri horren nondik norakoak azalduko dituzte batzar horretan.

Eguzkia lagun, bisitari asko izan ditu Gaztardogi azokak

Askotariko produktuak batu zituen azokak



Pilotalekuaren luze-zabalean askotariko produktuen 18 postu jarri zituzten.

IZURTZA Joseba Derteano
Izurtzan Gaztardogi Azokaren zazpigarren aldia egin zuten eguaztenean, San Nikolas egunez. Hotz handiko eguna izan zen, baina ez zuen euririk egin eta eguerdiko eguzkia aprobetxatuz, herriko zein kanpoko bisitari dezente izan zituen azokak. Horregatik, udal ordezkariak gustura azaldu ziren azokak izandako harreragaz.

Azokako postuetan jende ezaguna eta lehenago inoiz etorri bakoa ikusi zitekeen. Esaterako, Jesus Garatek ez zuen hutsik egin urteroko hitzordura bere ogiaz eta gaztagaz. Orozkoko txorizo postuarentzat, oster, estreinaldia izan zen. Ezti, lore, ortuari, ardo, likore, pate eta sagardo postuak ere izan ziren, beste hainbat posturen artean.

Izurtzako Mendigain dantza taldeak saioa eskaini zuen eguerdian. Ostean labeldun oilaskoak bazkaltzeko aukera izan zuten bertaratu ziren bisitariek.

ELORRIO M. Zuazubiskar
2013az geroztik, Elorrion odoloste txapelketa egiten dute abenduan. Hilaren 8tik 10era bitartean bosgarren Buzkantz Jaia ospatuko dute Elorrioko Udalak antolatuta eta Elorrioko Merkatarari Elkarteak eta Iturri-zoro Elkarteak lagunduta.

Dagoeneko ohitura bihurtu den lez, Buzkantz Jaia odoloste txapelketa eginda eman-go diote hasiera. 12:00etatik 14:30era bitartean, herriko elkarte gastronomikoetan herritarrek txapelketako odolosteak dastatzeko aukera izango dute.

Antolatzaileek jakitera eman dutenez, azaroaren 29an Gazetako Lagunarte Elkartearen epaimahai profesional batek aukeratutako 4 odoloste finalistak dastatzeko aukera izango dute herritarrek.

Horretarako, turismo bulegoan 11:00etatik 13:30era bitartean salgai egongo diren kupoiak eskuratu beharko dituzte, eta, ostean, 14:30 baino lehen, turismo bulegoan botoa emate-

Elorrion aurtengo odoloste onena zein den erabakiko dute, bihar

Barikutik domekara bitartean Buzkantz Jaia ospatuko dute Elorrion



Lehenengo Buzkantz Jaiko irabazlea.

ko aukera ere izango dute. Kupoi bakoitzak 5 euroko balioa du, eta horietako bategaz 4 odoloste

pintxo eta ardo beltza edo ura edateko aukera egongo da. Bestalde, Buzkantz Jaiko odoloste

txapelketako sari banaketa herriko plazan izango da, 14:45ean. Bertan, herritarren botoen eta

epaimahaiaren erabakiaren berri emango dute. Sukaldari hauek dira epaimahaikoak: Beñat Ormaetxea (Jauregibarrria jatetxea), Iñaki Uribe (Salsan katerin), Iñigo Kortabitarte (Kobika jatetxea), Iñigo Fuertes (Akebaso jatetxea) eta Eneko Ordorika (Zallo Barri jatetxea).

Horrez gain, abenduaren 8ra-ko Buzkantz Jaia dela-eta, ekoizle eta artisauen azoka antolatu dute plazako frontoian eta elizako portikoan.

Pintxo bira

Bestalde, bihartik domekara bitartean, herriko hamalau tabernatan odoloste pintxo ez gozatzeko aukera egongo da. Ondorengo taberna hauek parte hartuko dute udalak, Elorrioko Merkatarari Elkarteak eta Iturri-zoro Elkarteak antolatzen duten pintxo biran: Aterpek, Batzoki Amilibiak, Bikalek, Guriak, Leku Ederrek, Parrak, Portalekuak, Tangerrek, Toki Onak, Txokok, Urre-Berrik, Xarak, Xelaik eta Zubik.

AEK-k eta ANBOTOk hiru urterako hitzarmena sinatu dute Elorrioko Udalagaz, aste honetan

Idoia Buruaga alkateak ANBOToren proiektuari babesa adierazi dio



Jone Guenetxea, Idoia Buruaga eta Mertxe Mujika.

ELORRIO M. Zuazubiskar
Euskararen Egunaren bihar-munean Mertxe Mujika AEK-ko koordinatzaileak eta Jone Guenetxea ANBOTOk zuzendariak hitzarmena sinatu zuten Elorrioko Udalagaz.

Sinadura ekitaldian Idoia Buruaga Elorrioko alkateak babesa adierazi zion ANBOToren proiektuari. "Ezinbestekotzat dugu Euskal Herrian tokiko eta euskarazko hedabideak izatea. Esparru hori ezin hobeto betetzen du ANBOTOk gure herrietako berriak eta errealtatea eguneroko webgunean eta sare sozialetan eta barikuro gure etxeetan zabalduz. Horre-

gatik, eta proiektu hau babesten jarraitzeko asmoz, gure apustu irmoa berresten dugu 3 urterako hitzarmen hau sinatuz", dio Buruagak.

ANBOTOk arduradunak ere pozik agertu ziren sinadura ekitaldian. "Euskararen normalizazioan instituzioek eta euskalgintzako eragileok bide berean jarduteko beharra dugu. Euskaraldia ekimenean, esate baterako, pauso garrantzitsua eman da ildo horretan. Durangaldean ere indar txikiak batzea ezinbestekoa da, eta hitzarmen hau horren adibide da", azaldu zuen Guenetxeak.

Mertxe Mujika AEK-ko koordinatzaileak elkarlanaren balioa azpimarratu zuen. "Euskararen berreskurapenean elkarlana beharrezkoa da. Sinadura hau elkarlanaren ispilu da. Akordioak garrantzitsuak diren bi arlo indartzeko balio du: helduak euskalduntzea eta tokian tokiko informazioa euskaraz jasotzea", adierazi zuen.

Urtarrilera arte, erosketak pezetekin egin daitezke Elorrion

ELORRIO M. Zuazubiskar
Bere garaian eurotara aldatu barik geratutako pezetak gatzatzeko aukera eskaini du Elorrioko Merkatarari Elkarteak bere kanpaina berriagaz.

Herriko komertzioa bultzatzeko asmoz merkatarari elkarteak, filatelia-numismatika elkarteak eta Elorrioko Udalak martxan jarri duten kanpaina abenduaren 1ean hasi zen, eta urtarrilaren 31ra arte iraungo duela jakinarazi dute.

Merkatarari elkarrekoek jakitera eman dutenez, EMEko hainbat komertziotan txanponak zein billeteak erabiltzeko aukera egongo da. Balio trukea ere ofiziala izango dela ohartarazi dute, 166,386 pezeta euroko.

**DURANGALDEKO
ALBISTEAK
JASOTZEKO
BIDE BERRIAK**

f Anboto
Komunikabideak
t @anboto
i @anbotokomunikabideak

Whatsapp bidez
**Bidali 'ALTA' 688 635 041
zenbakira whatsapp
bidezko mezua bidalita**

Telegram bidez
**Bilatzailaren bidez
'ANBOTO' kontuan
sartu eta egin klik
'HASI' botoian**

“Bitxia da, baina deserria ezagutu dut Euskal Herrian”

Zazpi urtez erbestean egon eta gero, Abadiñora itzultzea erabaki du Imanol Jaio iheslariak

ABADIÑO A. Maldonado
Arrazoi politikoengatik erbestean zegoen azken abadiñarra zen Imanol Jaio Gabiola (Abadiño, 1985). Abenduaren batean bueltatu zen sorterrira.

Zelan itzulera?

Sentsazio kontrajarriak ditut. Alde batetik, poztasuna, sorterrira itzuli naizelako, eta, beste alde batetik, urduritasun eta lotsa puntu bat ere bai, ez naizelako politikaria eta ez nagoe-lako ohituta jendaurrean bera egitera. Urteotan ikusi ez dudana jendea, irribarretsu nire zain ikustea poztigarria da. Gogoan dut eskualdea berriz ezagutzeko, lehengo sentsazioak berriro topatzeko. Bitxia da, baina Euskal Herrian deserria ezagutu dut.

Urte gaitzak izango ziren zuretzat.

Barre egin dut, eta negar ere bai. Hemen ezin egote horrek baldin-

tzatu nau gehien bat, adibidez. Eta Arkaitz Bellon preso elorriarra espetxe politikaren ondorioz hil zenean, zer esanik ez! Sentsazio bitxiak dira ingurune naturalean bizi beharreko horiek kanpotik bizi behar izatea. Edo politika bizitzeko modua bera ere: handik komunikabideetan ikustea, eta ezin jende batez partekatzea.

Iheslarien kolektiboa politikaren lehenbiziko planora itzuli da azken urteetan. Zergatik orain?

Oihartzunik izan ez arren, iheslarien kolektiboa beti egon da hor. Ni gaztea naiz, baina beti egon dira iheslariak. Franco-ren diktaduratik erbestean bizi den jendea ezagutu dut, GALen mehatxua sufritu duena, baita ere. Haien begietan beldurra ikusten zen. ETAk borroka armatua uzteko asmoa agertu zuenetik, EIPK-k hausnarketa egin



Elkartasun asteburuaren ospakizunagaz batera itzuli da Abadiñora Imanol Jaio.

eta aurpegia emateko erabakia hartu zuen: ‘Deserrian gaude, baina ez gaude ezkutuan’. Gatazka honen ondorio garen heinean, gure egoeraren berri eman behar dugu, eta konpondu. Kontakizun bat dago egiteko oraindik iheslarien arloan. Egoera kontuan hartuta, uste dut erabaki egokia dela ni ere Abadiñora itzultzea, eta nire ekarpena egitea konponbidearen alde.

Abadiñon ez dago arrazoi politikoengatik inor espetxean edo erbestean. Konponbidera bidean goaz?

Berri ona da hori, ospatu beharrekoa. Badirudi herri honetan beti egon behar dugula sufritzen, baina albiste onak ospatu egin behar dira. Abadiñon ez dago, ez, baina oraindik Euskal Herrian dauden ehunka preso, iheslari, deportatu eta horiek ere Abadiñora ekarri gura nituzke.

Ipar Euskal Herrian ikasturte politiko bizia izaten ari da hau. Zelan bizi duzu?

Sentsazio gazi-gozaogaz, egia esan, herriaren alde batetik aurrerapauso ugari ematen ari direlako. Gauza batzuen alde kolore guztietako politikariak bildu dira, eta hori gozoa da. Baina, hiru herrialdetan baino ez dugu lortu. Bidasoaren beste aldean adostasun hori ez lortzea ulertezina da.

Neguan kalea Gaztetxeagatik aldatu dute herriko gurasoek eta umeeak

Lehenengo solairua bertso eskolako kideekin erabiliko dute

OTXANDIO Joseba Derteano
Iaz arte, Andresa Landako ludo-tekan egoteko aukera izaten zuten urte bira arteko umeeak eta euren gurasoek. Aurten ez dute horretarako aukerarik. Neguan hotz egiten du Otxandion kalean egoteko, eta gurasoek alternatiba bat aurkitu dute: Gaztetxeako lehenengo solairua.

Udalaren laguntzagaz herri batzar batera deitu zuten egoera zelan bideratu pentsa-

tzeko. Hainbat aukeren artean, Gaztetxea iruditu zitzaizkien aproposena. Gaztetxeako kideei ondo begitandu zaie proposamena. Beraz, lehenengo solairua darabilte. Eskalada-hormako erabiltzaileekin eta bertso eskolako kideekin banatzen dute espazio hori.

Auzolana garbitzeko

Gaztetxeakoen eta gurasoen artean auzolanera deitu zuten gunea txukuntzeko. “Guraso

pilo bat batu zen. Horrek erakusten du beharrezana baze-goela”, azaldu du Markel Urigoitia gurasoak eta ekimeneko sustatzaileetako batek.

Lehenengo solairuko txoko batean koltxonetak jarri dituzte umeeak bertan ibili daitezten, eta jolas batzuk gehituko dizkiete.

Bizikidetzarako arau batzuk adostu dituzte gaztetxeakoen: umeeak beti euren gurasoekin egon behar dutela



Lehen solairua eskalada-hormako eta bertso eskolako kideekin erabiltzen dute.

da horietako bat. Gainera, berogailu gastuekin laguntzeko ekimenak antolatzeke asmoa

ere badute. “Hainbat aukera aztertzen ari gara”, esan du Urigoitia.

hitz **#gomendioak**
artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

liburudenda

Caliban eta Sorgina
Sylvia Federici
2017

Dinosaurio handien liburu handia
Asioren artean
2017

YAN MORRISON
THE AUTHORIZED
BANG COLLECTION
Van Morrison
2017

clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA ETA ESPEZIALITATEAK
08:00etatik 21:00etara ZABALIK

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

RPS: 145-13

Zerbezaren kultura kalera ekarriko dute Iurretako lehen garagardo azokaren bidez

Sei artisau-garagardoren dastaketa egingo dute, tartean aurten jaio berri den Durangaldeko Garairena

IURRETA Markel Onaindia

Zerbeza maite dutenek aukera paregabea edukiko dute zapatu honetan Iurretan, lehenengo garagardo azoka antolatu baitute, IBA edo Iurretako Beer Azoka deiturikoa. Zaleentzat bakarrik ez, artisau-garagardoen mundua gehiago ezagutu nahi dutenentzat ere probatzeko leku egokia izango da. Izan ere, gero eta sona handiagoa duten artisau-zerbezak eskainita, sektore hori bultzatzea da azokaren helburu nagusia. “Jendea kultura honetara gerturatzen

Ibon Berriozabalgoitia:
“Jendea kultura honetara gerturatzen joatea gura dugu”



Garai Brewing Co etxeokak dira Iurretako Beer Azokako antolatzaileak.

joatea gura dugu”, esplikatu du Garai zerbeza ekoiztetzeko Ibon Berriozabalgoitiak. Durangaldeko hiru lagunak eskutik jaio berri den zerbeza marka hori

eta herriko jai batzordea dira antolatzaile, eta udala eta Urkiola Landa Garapena laguntzaile.

Askondo kaleko karpan ezarriko dute azoka, 11:00etan. Garai eta beste bost garagardo

edateko aukera egongo da, eta 12:00etatik 13:00etara dastaketa antolatua eskainiko dute, azalpen eta guzti, 5 euroren truke. Hortik aurrera, egunean zehar garagardo edan gura dutenek

3 euro balio duen eta egunera-ko sortu duten edalontzia erosi beharko dute.

Artisau-garagardoa edari horri balioa emateko ikuspegitik lantzen dute, multinazionalen

eredu konbentzionaletik kanpo. “Gure bezeroak kalitatezko garagardoa eskatzen dutenak dira”, esan du Berriozabalgoitiak.

Taldea egiten ikasten

Euskaldunok ondo dakigun lez, edatekoa hobeto sartzen da jatekoagaz batera. Horregatik, janaria emateko postuak ere ipiniko dituzte Askondon. Talogileak etorriko dira, eta euren produktuak saltzeaz gainera, taloak

18:30ean Deiedra taldea igoko da oholtzara, eta 21:00etan Txapito Guzman eta Ibarrako Langostinuek

egiteko ikastaroa emango dute, 12:30ean. Gero, 14:30ean, bazkaria egingo dute. Iluntzerako, *foodtruck* edo janaridun furgonetak etorriko dira Askondora.

Musikarik ere ez da faltako; 18:30ean Deiedra taldea igoko da oholtzara, eta 21:00etan Txapito Guzman eta Ibarrako Langostinuek.

Euren lanaren zabalkundearako Durangoko Azokaren testuingurua aprobetxatu gura izan dutela azaldu du Berriozabalgoitiak, eta Iurreta leku egokia dela.

Askondoko biribilgunea kenduko dute, oinezkoentzat lekua irabazteko

Udalbatzak, aho batez, 5,64 milioi euroko aurrekontua onartu du 2018rako



Iurretako herrigunea guztiz itxuraldatuko da datorren urtean, Askondotik Masperako tartea berrantolatu ostean.

IURRETA Aitziber Basauri

Iurretako herrigunea berrantolatu du udalak datorren urtean, eta, horretarako, 2018rako onartu berri duten udal aurrekontuan 100.000 euro gorde dituzte. Aho batez onartu dute EAJk eta EH Bilduk 5,64 milioi euroko aurrekontua, aste honetan bertan. Inbertsioen atalak aurrekontuaren %13 hartuko du: 700.000 euro, hain zuzen ere.

Askondotik Masperako tartea da berrantolatu dutena, “herri barruan bueltaka dabilen trafikoa kentzeko”, azaldu du

Iñaki Totorikaguena alkateak. “Askondoko alde bat trafikoa-arentzat itxi zenetik, ez du zentzurik herrigunean dagoen biribilguneak. Beraz, errotonda hori kendu eta oinezkoentzat gune berria sortuko dugu”, gaineratu du. Bestalde, Bixente Kapanaga kalea noranzko bakarrekoea bihurtuko da, espaloiak zabaltzeko aukera emanez. Durangotik datorrena Zubiaurre kaletik sartu ahalko da autoz herrian. Bestela, Bidebarrietatik.

Totorikaguenak esan duenez urtea amaitu orduko izango du-

te proiektua, “gehienez urtarri-lean”. 2018ko uda aurretik gura dute herrigunea itxuraldatuko duen obra gauzatu egotea.

Hiri-antolamenduko plan orokorra lantzeko ere gorde dute dirua (100.000 euro); Bixente Kapanaga eta Olaburu lotzen dituen tunela konpontzeko (20.000 euro) eta Hexagonoan gazte proiektua garatzeko (50.000), besteak beste. 2019an egingo diren N-634 errepide nagusiko berrantolaketak lanei aurre egin ahal izateko, “zuhurrak” izan direla azaldu du alkateak.

Supermerkatua zabaldu du Aldik, Bizkaian duen bosgarrena

IURRETA A. Basauri

Aldik supermerkatua zabaldu du Iurretan, Mallabiena industrialdean. Iurretan zabalduz gero, zazpi supermerkatu ditu Aldik, gaur egun, Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban; horietako bost Bizkaian. Saltokiak 1.200 metro koadro ditu eta 1.500 produkturen artean aukeratu dezake hara doan kontsumitzaileak.

Zabalkuntza arduraduna den Ander Arzubiaren berbetan, “produktuen kalitatea prezio ezin hobean” eskaintzen du Aldik, eta jendearen harrera ona izatea espero dute. “Gainera, Durangaldetik haratago doa gure eragin eremua”, esan du. Iurreta aukeratu dute supermerkatua zabaltzeko kokapenari dagokionez, leku “estrategikoa” delako.

Arzubiak gogoratu du herrialdeko produktuekin eta produktu ekologikoekin lan egiten dutela. “Erosketa ekologiko osoa egiteko aukera du etorriko den erosleak”, azaldu du. Supermerkatu berria 09:30etik 21:30era dago zabalik.

Auzolana egin dute Arrazolako eskola zaharreko eraikinean

ATXONDO M. Zuazubiskar

Arrazolako eskola zaharreko eraikina auzolanaren bitartez konpontzen dabilta Atxondon, eta atzo ere beraien alea jarri zuten zenbait arrazolarrek. Goizean goiz batu eta hainbat lan egin zituzten.

Azken hilabete hauetan, Anbotope elkarte zegoen gunean taberna eta denda txiki bat jartzeko asmoz dabilta lanean arrazolarrek.

David Cobosen hitzetan, proiektuari azkeneko bultzada bat emateko egin dute auzolana

Urte hasieran, Arrazolako eskola zaharreko proiekturako 40.000 euro bideratu zituen Atxondoko Udalak. Atzoko auzolanean David Cobos alkateak ere hartu zuen parte, eta, bere hitzetan, proiektuari azkenengo bultzada bat emateko egin dute auzolana.

Zaldibartarren inplikazioa eta elkartasuna bilatzen ditu Arrif Herriaren Aldeko batzordeak

Udalak Arrifeko herri mugimenduaren aldeko adierazpena onartu du



Abenduaren 1ean, San Andres jaietan, elkarretaratzera deitu zuten.

ZALDIBAR Aritz Maldonado 2012az geroztik, Arrif Herriarekiko Elkartasun Batzordeak hamaika ekimen egin ditu Arrif eskualdeko (Afrika) egoeraren berri emateko. Eta, azken hileetan, ugaritu egin dira ekitaldiak. Zaldibarren, esate baterako, elkarretaratzea egin zuten abenduaren 1ean, eta hilaren 14rako *RIF 58-59 Rompiendo el silencio* dokumentalaren proiektioa antolatu dute. Horrez gainera, herri mugimenduarekiko sostengu eta elkartasun adierazpena onartu zuen Zaldibarko Udalak azaroko osoko bilkuran. Batzordearen arabera, Rifaren alde agertu den lehenbiziko herria da Zaldibar.

Elkartasun batzordeko kidea da Bilbon bizi den Hafid Amazian. Beragaz batera, eskualdeko lagunak batzen dira. “Modu asanblearioan funtzionatzen dugu, eta iritzi ezberdinetako jendea biltzen gara. Gure herriarekiko konpromisoa da batzen gaituena”, adierazi du.

Amazianen arabera, Zaldibarren bertan jatorri arrifiarreko sei familia inguru daude. “Harreman estua dut hainbat zaldibartarregaz, eta ez da kasualitatea babesa lortzeko aukeratu dugun lehenbiziko herria Zaldibar izatea”, azaldu du arrifarrak. Eskualdeko beste herrietako erakundeekin ere berba egiten ari dira, beraien babesa lortzeko asmoz.

“Iritzi ezberdinekoak gara, baina Arrif herriarekiko dugun konpromisoa da batzen gaituena”

Abenduaren 14an ‘RIF 58-59 Rompiendo el silencio’ dokumentala eskainiko dute Zaldibarren

Urtebete protestekin

Hamarkadak daramatza eskualdeak Marokogaz krisi politiko-ekonomikoan. “Utzikeria handia dago agintarien aldetik; bestalde, oinarrizko eskubideak ere ez dira bermatzen”, azaldu du. Iaz, Mohssine Fikri arrantzalea hil zuen poliziak Al-Hoceiman; osteko protestetan, Imad El Attabi hil zen. Aurretik puri-purian zegoen giroa lehertu zuen horrek eskualdean, eta, Amazianen arabera, “aldaketa sozial eta politikoa- ren alde” milaka arrifitar irten zen kalera. Besteak beste, 10.000 lagun bildu zituen manifestazio bat egin zen. Marokoko gobernuaren erantzuna, baina, errepresio gehiago izan dela salatu du batzordeko kideak. “1.200 lagun inguru atxilotu dituzte, eta askok espetxean jarraitzen dute, tartean, nire lagun Ahmedek, 71 urte dituen arren”. Batzordeak antolaturiko ekimen sorta honen helburua Arrif herriaren egoera ezagutzera ematea eta elkartasuna bilatzea da.

Euskal Herriko kantuak ardatz dituen ikuskizuna, Berrizen

‘Euskal musikaren benetako istorioa’ antzezlanak ikusteko aukera egongo da domekan

BERRIZ Maialen Zuazubiskar Euskal Herriko kantutegian oinarritutako ikuskizun teatrala eskainiko dute Ez dok Hiru taldeko kideek abenduaren 10ean, Berrizen. Euskal musikaren istorioa modu oso ero batean kontatzea helburu dutela esan du Patxo Telleriak.

Euskal musikaren benetako istorioa antzezlanak Patxo Telleria eta Mikel Martinez hiru musikarigaz batera ikusteko aukera eskaintzen du. “Normalean gu biok ibiltzen gara, baina, antzezlan honetarako, musikarien laguntza beharrezko ikusten genuen. Azken batean, gu aktoreak gara, nahiz eta

musikan arituak ere bagaren”, jakinarazi du aktoreak.

Telleria antzezlea izateaz gain, *Euskal musikaren benetako istorioa* antzezlanaren sortzailea ere bada. Sortzailearen hitzetan, aspalditik zuen buruan musika ardatz zuen ikuskizun bat egitea, eta orain aukera izan du hori gorpuzteko.

Bestalde, Ez dok Hiruren filosoifiari jarraituta, ikuskizun berri honen asmoa euskara ardatz hartuta jendea dibertitzea dela adierazi du Patxo Telleriak. “Eta musikari, gure altxor kultural horri, diogun maitasuna islatzea ere bazen nire asmoa”, bukatu du.



Mikel Martinez eta Patxo Telleria. Guillermo Casas

Askondo koba 3Dra eramateko grabaketak

MAÑARIA J.D.

Arte paleolitikoan aberatsak diren hainbat kobazulo daude Bizkaian. Teknologia berrien laguntzagaz, kobazulo horiek hiru dimentsioko irudietan jasotuz eta, tartean, Mañariko Askondo kobazuloa dago. Al-

dundiak eta hainbat arkeologok eta espeleologok elkarlanean aurrera eramanez duten proiektua izan da.

Gainera, hiru kobazulotan (Ventalaperra, Santimamiñe eta Armintxe) ibilbide birtual bat egitea ahalbidetuko duen erakusketa ibiltari bat antolatu dute. Urtarrilaren 7ra arte Lekeition egongo dira. Ondoren, beste herri batzuetara eramango dute, baita Mañariara ere.

Lekuan lekuko egutegia

2018
Herririk herri egutegia

Ohiko lekuetan eta Durangoko Azokan Durangaldeko argitalpenak stand-ean (*Artekale 22-23*) eskuragarri!



2€

anboto



Anboto Komunikabideak



@anboto



@anbotokomunikabideak



Gaur egun harrera gunea dagoen espazioa berrantolatuko dute Herritarren Arretarako Zerbitzua egiteko.

Herritarren Arretarako Zerbitzua sortuko dute Aste Santura orduko

Aurrekontuan 100.500 euroko diru atala gorde dute zerbitzu berria sortzeko

ZORNOTZA Joseba Derteano 2018ko aurrekontuak onartu ditu Zornotzako Udalak. Herritarren Arretarako Zerbitzua (HAZ) egiteko, 100.500 euro gorde dituzte inbertsioetan. Gaur egun harrera gunea dagoen tokian kokatuko dute, hango espazioa berrantolatuta. HAZ-a Aste Santu ingururako prest egotea dute helburu, Andoni Agirrebeitia alkateak azaldu duenez.

Bestetik, gazteen emantzipazioari begira, 50.000 euroko atala gorde dute, lehenengo aldiz, etxebizitzetako alokairuekin laguntzeko. Horren inguruko

ordenantza lantzea eta onartzea izango da lehenengo pausoa.

Aurrekontuen zenbateko osoa 26.879.703 eurokoa da. "Zor-

Musika eskola eta bidegorri sarea dira aurrekontuetako beste inbertsio batzuk

notza kohesionatu bat dugu helburu, zerbitzu publikoen kalitatea handituz", azaldu du Andoni Agirrebeitia alkateak.

Zerbitzu publikoen atalak aurrekontuen %62 hartzen du. Musika eskola berria egiteko, 1.867.501 euroko diru atala gorde dute. Urgozo kiroldegia egiten hastea, eta Etxanoko Dueda auzorako eta Larrearako bidegorri sarea amaitzea dira beste inbertsio batzuk.

EAJ eta PSE-EEren aldeko botoekin onartu zituzten aurrekontuak azken udalbatzarrean. EH Bilduk eta Hiri Ekimenak kontra bozkatu zuten. Besteak beste, kiroldegia egin aurretik herriko beharrezko azterketa egitea beharrezko ikusten dute.

Saizarbitoriaren genero ikuspegia aztergai

ZORNOTZA J.D.

Lourdes Otaegi beizamarrak (Gipuzkoa) eta Garazi Otxagabia lakuntzarrak (Nafarroa) aurkeztutako lanari eman diote aurtengo Santi Onaindia beka. 9.000 euro jasoko dituzte udalaren eskutik ikerketa lana egin eta liburua idazteko. Ramon Saizarbitoria idazlearen *Bihotz bi: Gerrako kronikak* nobelan bikote harremanak eta indarkeria matxista zelan jasotzen edo lantzen diren aztertuko dute.

Oizerako bidea zarratuta dago, obregatik

GARAI M.O.

Oizerako bidea, Garai eta Iurretako Goiuria auzoa lotzen dituen errepideko bidegurutzetik doana, zarratuta dago egunotan, eta beste hiru bat astean horrela egotea aurreikusitako dute udal arduradunek. Izan ere, mendirantz doan bide hori konpontzeko obretan dabil udala, bidegurutzetik basozainen etxerainoko zatian, hain zuzen ere. Garaiko jabetzakoa da tarte hori. Oizera joan gura duenak Gallandako bidetik joan behar du datozen egunetan.

SEI HANKAKO MAHAIA

DANI MAEZTU PEREZ

EH Bildu



Eppur si muove

Durangerrek jakin egin nahi egunero usaintzen duten kiratsa nondik datorren eta euren osasunerako kaltegarria den ala ez. Durangoko hainbat guraso elkartzen hasi dira, Durangon ume eta gazteentzat dauden gabeziei proposamen zehatzak aurkeztu ahal izateko. Durangerrek ez dute ulertzen zergatik bota behar den eraikita dagoen eta berrerrabili daitekeen tren geltoki zaharra. Durangerrek ez dakite, edo ez dute jakin nahi, trenbidea eta trenen tailerrak egon ziren lurzoruetan 17 solairuko 5 etxebizitza-dorre egiteko asmoa dagoela. Nahiz eta alkateak esan gune hori Durangoko "biriki berdea" izango dela, bere alderdia, Durangon eta Gasteizen, urratsak ematen ari delako Durangoko erdigunea "biriki gris usteldua" bihurtzeko, eta bera egitasmo horren konplize nagusia da.

Mugimendua dago Durangon; Barrenkaleko bunkerrean ere horretaz konturatu dira eta propaganda taldea lanean jarri dute. Azken asteetan udal gobernuak ateratako prentsa oharra umeen jolasguneei eta airearen kalitateari buruzkoak izan dira. Tira, Pavlov-en estimulu-erantzunaren teoria; herritarrek mugitu eta udal gobernuak zeozer egiten ari denaren planta. Jarrai dezagun mugimendua lantzen, estimulua udaletik sortarazten dela eta erantzuna herritarrengandik lortzen dugun arte.

DURANGALDEA ASTEON

Jostailuak Gabonetako apaingarrien truke

ABADIÑO > Behar duten umeentzat jostailuak batzeko ekimena abiatu dute Abadiñon. Abenduaren 22ra arte Zelaietako jubilatuen tabernan batuko dituzte. Jostailuen truke Gabonetako arbola janzteko apaingarriak jaso ahal dira. Batutako jostailu denak Caritasi eman go dizkiote.

Auzotarren eskariak jaso ditu Aldundiak

OTXANDIO > Otxandioko Udala Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkariekin batzartu da Anteparaluzeta eta Morgaolako auzotarren eskariak helarazteko: autobus geltokiaren, errepideko irteeraren eta espaloien inguruan berba egin dute. 2018an zehar neurriren bat hartzea aurreikusitakoa da.

Izotz-pistarako izena ematea hasiko dute

DURANGO > Durangoko izotz-pistako ikastaroetan izena emateko epea hasiko dute astelehenean. Pinondo Etxean egin daiteke inskripzioa. Ikastaroak adinka banatuta daude. Guztira, 500 plaza daude 24 ikastarotan banatuta. Izotz-pista abenduaren 23tik urtarrilaren 7ra egongo da zabalik, goizean zein arratsaldean.

IRITZIA

astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbidea:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

ANBOTOk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitako eta emandako iritzien erantzukizunik.

Elorrio ez da Vancouver

"Mundu guztia da arrotza ene herrian" zioen Ruper Ordorikak orain baino patilla luzeagoak zituela, baina, orain ere, horixe bera pentsatuko du batek baino gehiagok. Hala, berriki, Vancouverren (Kanada) izandako lagun batek zioetan han inor ez dela bertakoa, han ez diola inori inporta nongoa zaren.

Euskal hiztun askok, berriz, gaitza dugu edozein elkarrizketan euskalki igarle sena pizteko eta ondokoaren azentua "azpeitiarra... ez! azkoitiarra..." joko-mokoan burutzen dugu identifikazio pausoa. Hurbiltasuna, erreferentzia garbiak eta ezagunak maite ditugun seinale, agian. Horrela biziko ginateke, gure lorontzi ederrean urte luzez. Vancouver uste baino hurbilago ote dugu, bada?

Azentu berriak lehenago ere etorri ziren Elorriora, eta ikasi genuen non zegoen El Moral, eta "bolilloak" zer ziren eta urteekin,

–urte guztiak borobilak izan ez baziren ere– sare estu haiek zabalduz joan ziren, eta gaur da eguna ez dagoena azentu jokoan egiterik, belaunaldi berriek bertako egiten dute, bertoko dira. Izan ere, identitate ondo errotua ez baita galtzen, antzaldatzen baizik, zorionez.

Elorrioko Udalak IPES Fundazioaren eskutik 2017ko abenduaren 15ean Arriolan aurkeztuko du urtean zehar garatu duen Aniztasun diagnostikoa, herrian bizi diren etorri berrien bizipenak Elorriotik mundura, mundutik Elorriora dokumentalean jaso eta kultur aniztasunaren espaloian topatzen diren koskak identifikatu eta zelai zabalagoak non diren irudikatuzeko balioko diguna.

Txus Arrieta Barinagarrementeria

Euskara, Hezkuntza eta Gizarte arloko zinegotzia - Elorrioko Udala



Cesar Bona Garcia | Maisua eta idazlea | Ainzon (Zaragoza), 1972

“Konpetentzietan hezi behar badugu, egin dezagun, baina bizitzarako gaitasunetan”

Umeak bizitzarako hezi behar direla uste du Cesar Bonak; genero berdintasunean hezteko moduez jardunaldia eskaini du

> **BERBAZ** Aitziber Basauri

Hezkuntza arloan erreferente bihurtutako Cesar Bona Elorrión izan da, ‘Escuchar para educar en igualdad’ izeneko jardunaldia emateko. Azken urte bian batera eta bestera dabil, baina argi du ikasgelan izango dela laster. Umeekin da “zorionsuen”. Dioenez, “politak da ume batek ikasten jarraitzeko gogoa izatea lortzea”.

Ezinbestekoa da entzutea balioen bidez hezteko?

Bai. Ez diot ez diegula entzuten, entzutea aditz interesgarria dela baino. Ate asko zabaltzen dizkigu entzuteak, eta gauza asko ikasten laguntzen digu. Elkar ezagutzen laguntzen digu. Entzutea eta partekatzea eskutik doazen aditzak dira eta joan-etorria dute: guk lez, umeek ere gauza asko dituzte partekatzeke, baina adierazteko aukerarik eman ezik ez dugu jakingo zer. Entzuten dizutela sentitzea oso garrantzitsua da, eta, horretarako, hori bezain garrantzitsua da entzuten jakitea. Hau guztia ezinbestekoa da balioen bidez hezteko.

Espainiako maisu onena izendatu zintuzten 2015ean. Munduko 50 onenen artean izan zinen. Nola daramazu hori?

Egia esan, ez dut uste horrela denik. Hedabideen kontu bat da, eta, zintzo diot, haserretu egiten nau beti titulu hori agertzeak. Ez dut uste ezertan hobe naizenik. Azken urte bietan askoz gehiago ikasi dut lankideen eskutik, urteetan ikasten baino. Lan zoragarria egiten duen jendea dago, anonimoak, eta ez naiz haien desberdina. Gainean dut fokua, besterik ez.

Hala ere, hezkuntza arloan erreferente bihurtu zara.

Espainian eta Latinoamerikan asko bidaiatu dut bi urteotan, eta horrek aukera asko ematen du ikasteko eta ikasitakoa partekatzeke. Elorriora etortzeak, horren garrantzitsua den genero berdintasunaz aritzeko, aukera eman dit, hemen hausnartutakoa noan tokira eramateko, eta beste batzuekin partekatzeke.

Genero berdintasuna barnertu da eskoletan?

Ezin dugu orokortu, ez da bidetzkoa. Badabil jendea genero berdintasunean lanean, baina egia da ere nik ikasle garaian, umetan zein nerabezaroan, ez dudala inoiz entzun genero berba. Bitxia da 15 urtean inork generoaz hitz egin ez izana, ezta sexu orientazioari buruzko aukere ere. Funtsezkoa da nire ustez. Paradoxikoa da irakasle izanik, gai honetan formakuntzarik jaso ez izana neska-mutirik hezi behar ditugunean. Horretarako, unibertsitateetan eta irakasle lez lanean ari direnen artean garrantzitsua da formakuntza.

Hutsune bat dago hor?

Eskolan ez da eskolarako hezten, bizitzarako baino. Horrela behar luke. Baina, horretarako, irakasleak erremintak behar ditu. Curriculumak oso luzeak dira, denborarik ez dago, baina umeak bizitzarako hezi behar ditugu. Eskola jazarpena, genero biolentzia... funtsezkoa da gaiok jorratzea prebentzio modura, eta heziketa beharrezkoa da. Izaki sozialak gara, eta administrazioek heziketarako espazioak eta denbora eman behar dute. Harritu egiten nau ikusteak badela ordaindik uste duenik emozioetan hezteka moda kontua dela. Inork berba txar bat esatean blokeatzea, beldurtzea, amorrua gestionatzen ez jakitea... izakiaren zati dira, oinarrizkoak, ezagutza lez kontuan hartu beharrekoak.

‘Las escuelas que cambian el mundo’ liburua idatzi duzu. Nolakoak dira eskola hauek?

Egun lanean ari diren eskolak dira, ikastetxean zein gizartean parte hartzen duten neska-mutirik. Konpromiso soziala dutenak, ingurumenarekiko konpromisoa. Izan ere, umeak aldaketa-eragileak dira. Ume zarenean eta mundura, ingurura begiratzeko aukera ematen dizutenean, ikusitakoa aldatzeko aukera, pauso hori eman eta zerbait berezia senti zenezake. Aipatutako eskolak zazpi tanta baino ez dira ozeano zabalean.



Eskola eta gurasoak eskutik joatea ezinbestekoa da?

Umeen onena ateratzeko ezinbestekoa da familiak eta eskolak taldean lan egitea. Lehen heziketa organoa da familia, ostetik

ditugu eskola eta gizartea ere. Eskola leku onena da familiei seme-alabak hezten laguntzeko.

Zer behar dugu hezkuntza on bat lortzeko?

Lehenengo, irakasleen lana aintzat hartzea. Ez gara ohartzen, irakasleok barne, zein garrantzitsua den gure lana. Umeak egunaren erdia daude gugaz, haurtzaroaren erdia. Gure erantzunen arabera joango da umearen izaera eraikitzen. Administrazioak lagundu egin behar digu eta sistema malguagoa behar da. Konpetentzietan hezi behar badugu, egin dezagun, baina bizitzarako gaitasunetan. Formakuntza ere behar da.

Maisu-maistren lanak prestigio galdu du?

Ez dut uste. Beraien umeen maisu-maistrekin lan egiten duten ehunka guraz egon naiz. Helburu berdina dute: gu-

re umeen onena ateratzea. Maisu-maistrek ez goaz familien kontra, ezta alderantziz ere. Hau gertatu daitekeela ikusiz gero, gelditu eta berba egin dezagun.

Nola eragin du teknologia?

Bizitzan indartsu sartu da teknologia, eta eskola bizitzaren zati da. Teknologia horren erabilera arduratsua falta da batzuetan. Oso garrantzitsua da egiten den erabilera kontuan hartzea.

Asko begiraten diogu Europa iparraldeko hezkuntza ereduari. Zer ekarriko zenuke?

Urruneko miresteko joera dugu eta badaude kalearen bestaldean oso politikak diren esperientziak, hainbeste baloratzen ez ditugunak. Toki guztietatik ikasi behar da. Irakasleago baloratzeke era ekarriko nuke. Baina lanbidea duin egiteko, nire onena eman behar dut.

“*Eskolan ez da eskolarako hezten, bizitzarako baino. Eta horrela behar luke*”

“*Entzutea eta partekatzea eskutik doazen aditzak dira eta joan-etorria dute*”

ZENBAT *egiten dugu* EUSKARAZ *Durangoan?*

AURKEZPENA

Durangoko euskararen erabileraren kale neurketa.
Emaitzak, irakurketa eta ondorioak.

HIZLARIA

Asier Basurto (Soziolinguistika Klusterra)

Abenduaren 13an
Plateruena Kafe Antzokian
19:00etan



DURANGO
Udala • Ayuntamiento

SUDOKU

Ipini sudoku bakoitzeko letrak dagokien tokian. Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta lau laukiko area bakoitzeko.

B			I
L		B	
	A		



ZAPI
ala AZPI?

A	P		
		A	
			I
		Z	




ZOPA
ala POZA?

A			Z
		P	
	Z		
O			




BLAI
ala BILA?



www.plazanbazan.eus
Egilea: Garbi

ELURRA MENDIAN



Zenbat animalia ikusten dituzu?



Sartu
www.plazanbazan.eus
web atarian eta
denbora-pasa hauen
erantzunekin batera beste
hainbat jolas aurkituko dituzu.

DOMINO ZATIA

Bete itzazu fibretako espazio zuriak, domino zati hau zuzena izan dadin.



Zein da Pelouzirenen itzal zuzena?

anbazan.eus
ne Ubeda (Aiarri)



Kiroldegian

Itxurak itxura, zati hauetatik batzuk ez dagozkio kiroldegiko irudiarri. Zeintzuk dira?



Hartz itxurako bi panpin daude bertan. Ikusten al dituzu? Eta pinguinoa?

AZ *ideiak*

JOSTAILU DIDAKTIKOAK • LIBURUDENDA-PAPERDENDA
HAINBAT IKASTARO azideiakdenda@gmail.com • Tel.: 688 726 424



Kultura



Jabier Ugalde, Iratxe Ugalde eta Uxue Abaitua, Gerediaga elkarteko standean beharrean.



Lutxi Alberdi, bisitari bati argibideak ematen.



Hesianeko Zuriñe eta Fran diskoak sinatzen.

Sormenaren lurraldeak atepak zabalik edukiko ditu domeka gauera arte

Eguaztenean inauguratu zenetik, Euskal Herri osoko milaka lagunek bisitatu dute Durangoko Azoka

> AZOKA Aritz Maldonado Durango sormenaren lurralde bilakatu da beste urte batez. Martxel Rodriguez dantzari lesakarrak zabaldu zituen eguaztenean bertako atepak, horretarako prestaturiko ikus-kizunagaz. Urteroko irudiak errepikatu dira ostean: bisitariak hara eta hona poltsak eskuetan dituztela, sortzaileak beraien azkeneko lanak sinatzen eta solasaldietarako lekua hartzen dauden lagunak. Inaugurazio ekitaldia hasi orduko, goiztiarrenekin eginak zituzten etxerako lanak.

Ofizialki hasiera eman aurretik, Jose Antonio Sistiaga margolariaren film laburrak proiektatu zituzten. Hain zuzen ere, Sistiagak eskuz marrazturiko diapositiba bat izan da 52. Durangoko Azoka iragarri duen kartela. Sistiagak berak lehen-

bizikoz zapaldu du sormenaren lurraldea, aurtan, aurkezpen ekitaldian parte hartzeko.

Standaren atzean

Aurtan, 400 nobedadetik gora egongo dira Durangoko Azokan: 257 liburu, 92 disko, 19 aldizkari, 5 bideo eta 27 bestelako. Postu horiek atontzen egon dira langileak azkeneko egunetan. Asko urtero datoz. Lutxi Alberdi iurretarrak, adibidez, berrogei urte baino gehiago daramatza Durangoko Azokan parte hartzen, laguntzen lehenengo, eta beharrean gero. Euskaltzaindiaren standean egongo da Azokak irauten duen egunetan. Durangoko Azokak belaunaldi arteko kultur transmisioan izan duen garrantziaz ohartarazi du iurretarak. "Euskal Herria eraikitzen laguntzen duen tresna bat da, belaunaldi batetik bestera

etortzen jarraitzen dugu", adierazi du. Hain zuzen ere, familia bereko hiru belaunaldi lotzen dituen haria ere bada Durangoko Azoka. Izan ere, Gerediagaren postuan Jabier Ugalde, Iratxe Ugalde eta Uxue Abaitua elorriarrak daude beharrean.

400 nobedadetik gora aurkeztuko dira Durangoko Azokan; milaka bisitari espero dira

Sistiaga margolaria, kartelaren egilea, lehenbizikoz egon da Durangoko Azokan

Elkarregaz lan egiten duten bigarren urtea dute hau, eta iazko esperientzia errepikatzeko asmoa dute. "Asko gustatu zitzaidan bertan lan egitea, jende asko ezagutu nuelako", azaldu du 11 urteko gaztetxoak. Iratxe amak ere sortzen den giroa go-raipatu du. "Harreman politik egiten dira, eta kultur ekitaldi piloa daude; ez gara Durangotik irteten egun hauetan". Lau orduko txandak dituzte egunean. "Segituan pasatzen dira", azaldu du Jabierrek, familiako nagusienak. Giroa ez, baina lau hamarkada hauetan, Durangoko Azoka aldatu dela dio Alberdik. "Aldaketa handiena, papeletik digitalerako jauzia izan da".

Lehenbiziko ilarak

Sortzaileek harreman estua garatu dute urteotan Azokako

bisitariarekin, eta hori nabarmentzekoa da. Izan ere, gus-tuko artisten sinadurak edo argazkiak lortzeko baliatzen dituzte egun hauek bisitariak. Eguaztenean lehen orduetik musika zaletuek ilarak egin dituzte, besteak beste, Hesianeko Zuriñe eta Fran, Glaukomako Juantxo edota Izaro Andres mallabitarragaz argazkia lortzeko. Hamaika postutan errepikatu da egoera. Sortzaile askok Ahotseneako emanaldiak standeko lan orduekin tartekatu behar dituzte, gainera. Adibidez, Nebrashka durangarrek rock emanaldia eskaini zuten Ahotseneako karpan, eguazten goizean.

Aldarrikapenaren plaza

Landako Gunetik kanpora ere, Durangoko Azokak badu eragirik. Horrela, denetik ikusten da inguruan: ikasketa bidaian joateko laguntza bila dauden ikasleak, janari postuak eta baita zenbait eragile ere protestan.

Funtsean, urtero bititzen diren gauza txiki hauen guztien nahasteak bilakatzen du Durangoko Azoka berezi.



Zorione Alberdi Arroitauregi
Ibaizabal (Errota Ostaturia)

Ibaizabal ostaturia bete-beteta dago Azokara datozen bisitariek.

Azokak zelan eragiten du zuen eguneroko lanean?
Egun bereziak izaten dira. Eguaztenean ikasleek klaseak dituzte eta horiei Azoka-

rako datorren jendea gehituko zaie. Jendea Nafarroatik zein Iparraldetik etortzen denez, euskalki ugari nahasten dira, eta polita da. Katalan bazuk ere etorriko dira

Ostatua beteta duzue?

Ostatua beteta dago, aspalditik gainera. Logelak aurreko urtetik erreserbatzen dituzte. Aurten, musika talde bat ere etorriko da. Aterpetxeari dagokionez, literak ere beteta daude. Beraz, goizetan, gosaltzeko orduan, parrandatik bueltan datozenak eta Azokako standera lanera doazen jaiak berriak elkartzen dira.



Covadonga Noval
JAED elkarte

JAEDen standean boletoak saltzen egongo denetako bat da Noval.

Azoka egunetan asko saltzen duzue?
20 bat urte eramango ditugu standea ipintzen, eta betidanik igarri dugun zerbait da.

Goienkalera bidean, bertatik pasatzean gure standean geratzen dira asko. Gure elkarrearen ekintzen gaineko esplikazioa ematen diegu, gizarte bazterketa arriskuan dauden pertsonen laguntzeko dela. Hartara, jendeak ezagutu egiten gaitu.

Orain kanpotik datozenek Internet dute sariez informatzeko, baina lehen?

Donostiatik, Bilbotik... leku askotatik deitu izan digute saritutako zenbakiez galdetzeko. Hainbat gutun ere bidali izan ditugu, saritutako zenbakiekin.

GEURE DURANGALDEA

FERNAN RUIZ LARRIGAN
Euskaltzalea



Aldiak eta aldeak

Trenez abiatu da Durangorantz. Urte asko, euskararen kulturaldi honetara etorri barik. Azkenengoz etortzean, egurrezko eserleku gogorak eta metalezko barrak zituen bagoi-atalak, burdin uger eta koipe belztuaren usaina. Gaur, plastiko kirats sarkorreko bagoiak lur azpian utzi du konturatu orduko; entrete-nigarria egin zaio bidaia, gazteen berbaldiari esker. Belarriak erne, hausnarraren hasi da bere bizitzan *continuum* bat izan den gai konplexu baten gainean. Zenbat ekinaldi bizi izan ditugu eusten. Oztopo lasterketa geldoak, hamaika. Zenbat lagun utzi ditugu bidertzean, ernegatuta, euskalduntzeak dakarren presioa ezin jasan. Alde egotetik, euskaratik alde egiteko aukera egin dute.

Zenbat orrialde zuri-beltz, higatutako berbaz beterik. Egitasmo, transmisio, aldeko jarrera, diagnostiko, sustapen, plangintza... Badirudi garai berria datorkigula, Euskaraldia. Hizkuntza ohi-turak aldatzeko ahalegina, euskaldun pasiboak erakarri eta bizkortzeko asmoa... Atzera ere, oztopo lasterketa aldia ote? Lasterketa aldiak, ezagutzaz eta gaitasunaz jantzita lehiatuko gara eta, ea sari- ren bat lortzeko aukera dugun. Bateraldea, elkarlana eta auzolana aipatu dute Euskaraldia aurkeztu digutenek; jakina, hori izan da beti batzuen oinarria eta entusiasmoa. Bat egin dutenerako... Gure laguna sormenaren lurraldean sartu da hausnarrean.

Plateruenerako sarreran ekitaldi baten aurretik Andoni Urzelai txartelak batzen aurkitzea klasiko bat da. Azokan ere auzolanean arituko da antzokian.



Andoni Urzelai Eraña
Plateruena Kafe Antzokia

Plateruenerako sarreran txartelak jasotzen jardungo duzu Azokan. Noiztik zabilta?
Plateruena sortu zenetik, orain 13 urtetik, auzolanean dihardut sarreran eta leihatilan, urte osoan zehar. Azokan ere ibiltzen naiz, jakina.

Baina, Azokako egunetan edo urteko beste egunetan

aldea egongo da.
Azokan jendetza ibiltzen da. Urtean zehar bizpahiru lagun nahikoa dira atean eta leihatilan egoteko. Azokarako bost lagun behar izaten dira. Dena dela, sukaldian egoten direnek gehiago sumatzen dute lana handitzen zaiela.

Durangoko Azokako egunetan, materiala saltzeko dena jartzen du Euskal Herrian Euskarazek Goienkale 16an.



Antton Izagirre Bravo
Euskal Herrian Euskaraz

Zein ekarpen egiten dio Durangoko Azokak zuen elkar-teari?

Ekarpen ekonomikoaz gainera, guretzat plaza handia da Durangoko Azoka, gure mezua eta aldarrikapenak zabal-tzeko gune proposa.

Nola antolatzen zarete? Bazu-zue astirik Durangoko Azoka bisitatzeko?
Durangoko eta Iurretako ki-

deok aurrelana egiten dugu, batez ere. Dendan izaten dugu txandaren bat edo beste ere, baina badugu astia Azokara joateko. Beste herrietatik datozen kideei, berriz, egun oso-ko plana geratzen zaie: txanda dutelako bisitatzen dute Azoka, edo alderantziz.



Jone Novo Olea
Kameralaria

EITB.eus webgunerako piezak grabatu eta editatuko dituzte egunotan Jone Novok.

Zein lan egingo duzu Azokako egunetan?
EITBren webgunerako bideoak grabatu eta editatzen nabil Azokako egun hauetan.

Ondoren, webgunera igotzen ditut.

Lan gogorra izaten da? Ordu asko aritzen zarete?

Egun intentsioak izaten dira, ordu asko egoten garela-ko Azokarako grabazioak egiten. Gainera, sortzaileek beste konpromiso batzuk ere izaten dituzte eta grabazioak, tarteka, ahal den momentuan inprobisatu behar izaten dira. Bestalde, gustura aritzen naiz, euskal kultur gintzako jende eta proiektu interesgarriak ezagutzeko aukera ematen didalako.



Aroa Nodar
Palentinokoa

Aspalditik, sortzaileen bilgune da Palentino taberna.

Zuentzat zoramena izango dira egun hauek, ezta?
Aste bat lehenago dena antolatzen eta jende gehiago kontratatzen hasten gara. Apur bat zoramena izaten da, baina

pozik egoten gara. Urtero-urtero jende antzerakoa etortzen da, eta eurek ere gustura egoten dira.

Artista askoren topaleku da.
Tabernan egiten dugun zazpi-garren Azoka da honakoa, eta dagoeneko lagunak ere egin ditugu. Zea Maysekoak etorri izan zaizkigu, Berri Txarrakekoak, Doctor Deseokoak... Gugaz oso jatorrak izaten dira. Baina, jende asko izaten dugu tabernan, eta batzuetan, irtetzen direnean ohar-tzen gara. "Hara! Begira nor izan den!"



ABENDUAK 7
11:00/13:30 Holoque, Mundu onirikoa.
ABENDUAK 8
20:00 "Omentzetik ereitera" ekitaldia.
ABENDUAK 9
MIKROANTZERKI MARATOIA
12:00 Ganba alaia / 12:30 Minus ikuttua / 13:00 Sarean kateatuak / 13:30 Takoidun zapata gorria / 18:30 Takoidun zapata gorria / 19:00 Ganba alaia / 19:30 Minus ikuttua / 20:00 Sarean kateatuak.

Sanagustinalde, 12 · Tel.: 946 030 021
sanagustin@durango.eus



PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia www.plateruena.eus
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

AZOKA EGUNETAN ETORRI GURE KARPARA EUSKO LABEL MENUA DASTATZERA	ABENDUAK 7 22:30ean ARCADA SOCIAL KONTZERTUA	ABENDUAK 8 21:30ean AUDIENCE KONTZERTUA	ABENDUAK 9 21:30ean GLAUKOMA KONTZERTUA
--	---	--	--



Eider Rodriguez



Eñaut Elorrieta



Beatriz Zabalondo



Eneko Sagardoi



Miren Amuriza



Olatz Osa



Amelia Barquin



Kike Amorarriz



Zurine Hidalgo



Itzi Gorizelaia

Geroa zugaran: geure mundua kontatzeko

Izan **berria laguna**
Berria.eus/geroazugan



Amaia Araiztegi Mendibe | Munduko txapelketa da One Wall modalitatean | Mallabia, 1997

“Orain erraketagaz nabil buru-belarri, eta hor ikusten dut nire burua etorkizunean”

Paleta goman eta ‘One Wall’ modalitatean munduko txapelketa irabazi du Kolonbian Patricia Espinarregaz bikotea osatuz

> PILOTA Joseba Derteano

Mallabiko Landazuri baserriko egongela txapelez eta garaikurrez beteta dago. Amaia Araiztegiren gurasoek mimo handiz zaintzen dituzte alabaren lorpenak. Esku pilotan zein paleta goman eskuratutakoak. 20 urte besterik ez, eta beterano baten palmaresa du. Txapelen bildumara batu duen azkena Kolonbiako munduko txapelketan lortutakoa da. Patricia Espinarrek eta biek ‘One Wall’ modalitatean irabazi dute.

Aurten Olentzero aurreratu dela esan behar nizun, baina ikusten dut askotan bisitatu duela zure etxea...

Irabazitako txapel denak hor daude. 2013an binaka irabazitako GRAVN txapelketa, esaterako, 28 urtez bizkaitar bat irabazi barik zegoen txapela. Baina nik gehien estimatzen dudana garaikurra esku pilotako azken urtean Berrizko Udalak eta Oizpe pilota elkarteak eman zidatena da. Ez nintzen han pilotan aritutakoa, baina detaile hori eduki zuten nigan, eta estimu berezia diot. 14 urte nituen.

Orain, Kolonbiako txapela gehitu diozu bildumari. Zelan joan zen txapelketa?

Binaka ez ezik buruz buru ere ibili ginenez, egun gutxitan asko jokatu genuen. Patricia Espinarrek hamaika partidu izan zituen hiru egunean, eta nik zortzi. Ekuador, Mexiko eta Holanda menderatuta heldu ginen azkenera, eta finalean Mexikori irabazi genion.

Mexikoren kontra birritan jokatu zenuten.

Bai. Finalean askoz hobeto jokatu zuten, eta latza egin zitzaigun irabaztea. Gainera, gauza kuriosoa gertatu zen. Lehenengo set-eko tanto batean pilota hankapetik igaro zitzaion Patricia-ri. Setak normaltasunez aurrera jarraitu zuen, eta geuk irabazi genuen. Handik zati batera, pilotak Patricia hankan jo zuela adierazi zuen epaileak, eta tantoa errepikatu behar izan genuen. Azkenean, seta eurentzat izan zen eta partiduari buelta eman behar izan genion. Gugaz



Amaia Araiztegi, gurasoak bizi diren Landazuri baserriko egongelan, bere ibilbideko txapelek inguratutik.

joandako kameralariak grabatutako irudian garbi ikusten da pilota hankatik 20 bat zentimetrora igaro zitzaiola. Epaile italiarra zen. Gure mutilekin ere tirabirak izan zituen. Ez dakigu zergatik izan zuen jarrera hori, baina, tira, azkenean irabaztea lortu genuen.

Zer esperantzazagaz joan zinen?

Ondo pasatzera joan nintzen, norbere burua zenbat eta gehiago presionatu, okerragoa delako. Patricia emozionatuta zegoen, eta ni, berriz, beldurtuta. Gogoan dut 2012an —bere lehen munduko txapelketan— valentziarrak nahiko eskasak zirela *One Wall*-ean, baina harrezkero modalitate horretan ere entrenatzen zirela esan zidaten. Ni, guztira, lau bat orduko entrena-

menduagaz nindoan. Horrelako kontuek arduratzen ninduten.

Zelako harrera egin zizueten kolonbiarrek?

Hurbileko jendea dira. Kalean denek agurtzen gintuzten eta eurekin argazkiak ateratzeko eskatzen zidaten. Uste dut euren hurreratzeko ahalegin handienetakoa euskaldunok egin genuela, eta hori estimatu egiten dute. Esperientzia aberasgarria izan da. Hango kafe enpresa bateko iragarki baterako grabazioak ere egin zizkiguten. Kafe enpresa bisitatzera gonbidatu gintuzten. Han, brometan, kafe poltsak hartu eta burura etorritako leloak esaten hasi ginen, iragarki batean aritutako bagina legez. Gustatu zitzaizen eta grabatu egin gintuz-

ten. Ez dakit irudiak erabiliko dituzten. Hori bai, kafe asko erosi genuen, eta uste zutena baino gehiago birrindu behar izan zuten.

Zelan gogoratzen duzu 2012ko munduko txapelketa?

Irlandan izan zen, eta 15 urte nituen orduan. Saillkapen partiduak jokatu arte *One Wall* modalitatea entzun barik neukan. Probatzera joan eta azpitxapel-dun geratu nintzen buruz buru. Esperientzia itzela izan zen.

Esku pilota 14 urteagaz utzi zenuela diozu. Adin horretan askok uzten dute. Emakume Cup txapelketa lagungarria da emakumeen pilota sustatzeko? Dilema itzela dut gai horregaz. Ez zait erraza egiten horri bu-

ruz berba egitea. Izan ere, antolatzaileak nahiko lagunak ditut, eta lan handia egin dute. Nik parterik ez hartzea erabaki dut. Izan ere, beste hainbat modalitate daude pilotan eta emakumeek urteak eta urteak daramatzate jokatzeko. Ez pilotan bakarrik, baita saskibaloian eta beste hamaika kirolatan ere. Haiei oihartzuna ematen saiatu beharrez, hutsetik txapelketa bat sortu eta horretan zentratu dituzte ahaleginak. Itsaso Praderak urteak eman ditu paleta gomako elitean, eta telebistan zenbat bider eman diote hitza? Horrek ez du esan gura txapelketa horren kontra nagoenik, ezta gutxiago ere. Gauza positiboak ditu. Baina final horiek telebistan eman dituzte, eta beste hainbat iragarri ere ez dira egiten. Iruditzen zait oreka gehiago egon beharko litzatekeela.

Urtea amaitzera doa. 2018rako zer asmo duzu?

Pala, ezker horma, apur bat laga egin dut. Hiru-lau txapelketatan parte hartzen dut, klubagatik. Merezi dutelako. Trinetean jarraituko dut, eta baita erraketagaz ere. Buru-belarri nabil erraketagaz. Gipuzkoar batzuen ekimenez, sasoi bateko erraketa gaur egunera ekarri dute. 80 urte dituzten errakete-kin eta larruzko pilotekin jokatzen dugu. Betaurrekoekin eta kaskoagaz, eta neurritan egindako gonekin. Lan itzela egin dute. Beti gura izan dut larruzko pilotekin jokatu, joko biziagoa delako. Asko gustatzen zait. Nire etorkizuna hor ikusten dut. Aspaldiko modalitatea da, emakumeek, behingoz, kirol batetik bizitzeko aukera izan zutena. Euren gaitasun egin behar dugun zerbait dela iruditzen zait.

Itsaso Pradera herrikideak aurten utzi du paleta goma. Arraroa egingo zaizu berriro kantzetan ez ikustea?

Itsasogatik hasi nintzen palaran, eta berak erakutsi zidan jokatzeko. Gazteagotan esku pilotan aritu nintzen ere hantxe zeuden bera eta bere aita. Bere pausoei jarraitu diet. Bai, arraroa egingo zait kantxan ez ikustea.

Euskal Herri osoko 211 mendizalek hartu dute parte Zaldai taldearen mendi erronkan

Abenduaren 15eko ekitaldian oroigarri bana emango diete erronka amaitzea lortu duten 83 lagunei



Ixasok, Naiak, Maiderek eta Felixek familian osatu dute Zaldairen mendi erronka. Zaldai

> MENDIA J.D.

Iurretako Zaldai taldeak mendirako zaletasuna sustatzeko aurten abiatutako erronka arrakastatsua izan da. Euskal Herri osoko parte-hartzaileak izan ditu: Bizkaikoak (Ondarroa, Gernika...), Gipuzkoakoak (Aretxabaleta, Zaldibia...), Araba-

koak (Gasteiz) eta Nafarroakoak (Etxarri-Aranatz). 211 mendizalek hartu dute parte, askok familian. Erronka amaitzea lortu duten 83 lagunei omenaldia egingo diete abenduaren 15ean, 19:30ean, Askondoko aterpean. Oroigarri bana emango diete, eta mendizale ezagunen zorion

mezuak jasotzen dituen bideo bat eskainiko dute. Bertsolariak eta dantzariak ere izango dira.

Hile batzuen barruan Euskal Herriko hainbat mendi igo behar izan dituzte erronka osatzeko. Amaitu dutenen artean, emakumeak gehiago dira (46) gizonezkoak baino (35). Txakur

bik ere lortu dute erronka egitea, eta eurentzako oroigarriak ere prestatu dituzte. Askok familian parte hartu duten adierazle da 18 urtetik beherakoen kopurua: 38. "Ez genuen horrelako harrerarik espero. Oso pozik gaude. Askok mendirako afizioa berpizteko balio izan diela esan digute", adierazi du Erlantz Zaldundide Zaldaiko kideak.

Mendi astea

Mendi astearen barruan hainbat ekintza prestatu dituzte. Esaterako, abenduaren 14an, Oihana Azkorbebeitiak, Zigor Iturrietak eta Igor Esparzak *Mendi lasterketak eta familia* izeneko hitzaldia eskainiko dute Ibarretxe kultur etxean. Abenduaren 16an, *Basatzan* mendi bizikleta martxa antolatuko dute lehenengoz (25 km, 100 metroko desnibel positibo). Abenduaren 17rako, berriz, *Iurretako Urak Ezagutuz* izeneko ibilbide gidatua prestatu dute, umeek ere egiteko modukoa.

ADITUAREN TXOKOA

UNAI ZAMALLOA ZUBIAURRE

Saskibaloia



Gure taldeak, aurrera!

Denboraldia aurrera doa. Irailean idatzitakoaren errepaso bat egin dut, eta orduan gai bakarria zegoen denon ahotan, Ametx Zornotza. Hori irailean izan zen, uda guztian izandako prozesuaren bukaeran.

Orain beste egoera bat dela dirudi. EBA mailan bikain eta gogor ari da taldea. Porrot garrantzitsu bat izan zuen Santanderreko Estelaren aurka, baina, orokorrean, nagusitasun handiarekin ari da. Joko bikaina eta ikusgarria, bere fisikoa nagusituz. Liga erregularrean taldearen indarra eta jokoa lantzen eta lehenengo postuan amaitzen saiatuko dira. Ondoren, play-off partiduak etorriko lirake eta Zilarrezko LEB mailara igotzeko fasea... Ikusiko dugu! Aurrera!

"Orain beste egoera bat dela dirudi Ametx Zornotzan. EBA mailan taldea bikain ari da"

Durangaldeko korrikalariak nagusitu dira kros mistoan

Azkorbebeitiak eta Zarrabeitiak irabazi dute; eskualdeko bikoteek osatu dute podiuma



Oihana Azkorbebeitia eta Eneko Zarrabeitia txapela jantzita, Zarautzen.

> KORRIKA J.D.

Kros mistoko txapelketan erabat agindu dute Durangaldeko korrikalariak. Oihana Azkorbebeitia eta Eneko Zarrabeitia abadiñarrek merezita jantzi dute txapela, lau probatik hiru irabazita. Irene Loizate eta Paul Bereziartua durangarrak geratu dira bigarren. Joan zen asteburuan, Zarautzen, borroka estua mantendu zuten bikote biek, eta, azkenean, abadiñarrek nagusitu ziren. Podiumeko hirugarren postua Garazi Sampedro eta Jon Aranburu atxondarrentzat izan da. Azpimarratzeko lana egin dute Jone Aizpurua eta Gorka Garitaonandia durangarrek ere, zazpigarren tokian amaituta.

Olazarreko finalaren bila, Zaldibarren

> ESKU PILOTA J.D.

Olazar pilota txapelketako bigarren finalerdiak jokatu dituzte datorren eguenean, 21:30ean, Zaldibarko pilotalekuan. Kaiolan, Salaberria nafarrak eta Elola gipuzkoarrak neurtuko dituzte indarrak. Binaka, Prietok (Mungia) eta Sanchezek (Errioxa) Zabalarren (Errioxa) eta Etxebarriaren (Igorre) kontra jokatu dute. Prietok eta Sanchezek ezustekoa eman zuten final laurdenetan, Zubizarretari eta Garmendiari irabazita.

Beste mailetan, ostera, gauzak borrokatuago daude. Nesken Lehenengo Mailan, Tabirako Baqué bere lana ondo ari da egiten, nahiz eta azken partiduan porrota izan azken minutuan La Salleren aurka.

Tabirako Baqué mutilen taldea ere goiko postuetan ari da borrokan, nahiz eta azken partidua, San Cernin liderraren aurka, 6 puntugatik galdu Iruñean. Egia esan, taldearen lana oso ona da.

Gure taldeen lana ona izanik, aurten ere denboraldi polita eta gogorra biziko dugu. Aurrera!

Seguros Bilbao

RUEDA BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda

Landako etorbidea, 1 DURANGO
Tel.: 946 202 710 - Faxe: 946 816 577
jrueda@segurosbilbao.com

GAER DESINFEKZIOAK



Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...



Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxe: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

ESTETIKA GIDA



Jon Sopelana
lunik

lunikeko estetika kabina berria

Durangoko lunik ile-apaindegian estetika lantzeko kabina berria daukate. Horretaz eta euren eskaintzaz berba egin digu Jon Sopelanak.

Kabina berria duzue luniken. Zelakoa da?

Erreforma bat egin ostean, estetika atalerako kabina berri bat sortu dugu luniken. Berria, txukuna eta eroso da, giro lasaia da nagusi. Bertan estetikako lan guztiak egin ahalko ditugu.

Durango Fashion Gauean parte hartu zenuten. Zelako esperientzia izan zen?

Modelo asko izan arren, estilo anitz eta politak sortzeko aukera eduki genuen. Nire lankide Eder, Laura eta Jenifer zoriondu gura ditut, bere adierazpen estilotsuek arrakasta handia eduki baitzuten.

Zer egin genezake ilea koloreztatu edo mozteko?

Koloreen distira, ilearen osasun onaren eraginez da. Luniken ditugun koloreak olio eta buztinez eginak dira. Horiekin eta teknika aproposekin lortzen dugu ileari kolorea ematea, eta horretaz aparte, zaintzea eta bizia ematea ere bai. Ile mozteak egiten oso trebeak gara. Gura duzun estiloa adierazteko gai. Guztiok gonbidatuta zaudete.



ILE-APAINDEGIAK



ESTETIKA ZENTROAK



Profesionalik onenak zure zerbitzura!



> BOTIKAK

BARIKUA, 8 09:00-09:00
Unamunzaga Muruetatorre 2C - Durango 09:00-22:00
Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza 22:00-09:00
Aramburu, Maria Isabel-Guarrotxena, Javier Txiki Otaegi 3 - Zornotza
ZAPATUA, 9 09:00-09:00
Bazan Diaz Uribarri 5 - Durango 09:00-13:30
Mugica Andra Maria 9 - Durango
Unamunzaga Muruetatorre 2C - Durango
Sagastizabal Askatasun etorb. 19 - Durango
Balenciaga Ezkurdi plaza 8 - Durango
Campillo Montevideo etorb. 24 - Durango
Navarro Artekalea 6 - Durango
De Diego Intxaurrondo 22. - Durango
Bartolome Gabiola 2 - Berriz
Eguren, Isabel Trañabarren 15 - Abadiño
Jaio-Olabarrieta Errekakale 6 - Elorrio
Guarrochena, Lide Bide Zahar 14 - Zornotza
Melero, Rosa Mari San Pedro 31 - Zornotza
Iruarrizaga, Karmele San Miguel 15 - Zornotza 09:00-14:00
Irigoien Bixente Kapanaga 3 - Iurreta 09:00-22:00
Sanchez, Miren Itziar Urbite poligonoa, 4 P8, Abadiño
Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza 22:00-09:00
Aramburu, Maria Isabel-Guarrotxena, Javier Txiki Otaegi 3 - Zornotza
DOMEKA, 10 09:00-09:00
Mugica Andra Maria 9 - Durango

09:00-22:00
Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza 22:00-09:00
Aramburu, Maria Isabel-Guarrotxena, Javier Txiki Otaegi 3 - Zornotza
ASTELEHENA, 11 09:00-09:00
Irigoien Bixente Kapanaga 3 - Iurreta
Guarrochena, Lide Bide Zahar 14 - Zornotza 09:00-22:00
Sanchez, Miren Itziar Urbite poligonoa, 4 P8, Abadiño
Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
Iruarrizaga, Karmele San Miguel 15 - Zornotza
MARTITZENA, 12 09:00-09:00
Navarro Artekalea 6 - Durango
Guarrochena, Lide Bide Zahar 14 - Zornotza 09:00-22:00
Sanchez, Miren Itziar Urbite poligonoa, 4 P8, Abadiño
Iruarrizaga, Karmele (San Miguel 15 - Zornotza)
Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
EGUAZTENA, 13 09:00-09:00
Campillo Montevideo etorb. 24 - Durango
Guarrochena, Lide Bide Zahar 14 - Zornotza 09:00-22:00
Sanchez, Miren Itziar Urbite poligonoa, 4 P8, Abadiño
Iruarrizaga, Karmele San Miguel 15 - Zornotza
Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
EGUENA, 14 09:00-09:00
Sagastizabal Askatasun etorb. 19 - Durango
Guarrochena, Lide Bide Zahar 14 - Zornotza 09:00-22:00
Sanchez, Miren Itziar Urbite poligonoa, 4 P8, Abadiño
Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
Iruarrizaga, Karmele San Miguel 15 - Zornotza

> ZORION AGURRAK

✉ zorionak@anboto.org
eguztzeneko 14:00ak arteko epea

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozaturango@gmail.com
f Gozatu Gozotegia

Zorionak, **Ekhi (699. alea)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.



> Zorionak, **Aihotz**, abenduaren 1ean 11 urte bete zenituen. Jarraitu jatorra eta alai izaten.



> Zorionak, **Lucia**, etxeko guztien partez. Musu handi bat.



> Arraioa! Urtebete igaro da jada! Zorionak birramama Nati eta Gasteizko aitite-amama eta osaben partez.



> Zorionak, **Tomas**, etxekoan partez, egun polit bat izan dezazula!



> **Uma**, bihotza! Zorijonak zure 10. urtebetetzean, lastana. Guretzako be zorioneko 10 urte. Itzel maite zaitugu!



> Zorionak, potxolo! Moxu handi handi bat famili guztiaren partez!



> Zorionak etxeko txikiari, Garazi, aita eta amaren partez. Urtetxo bi pasa dira! Maite zaitugu!

Anbotorenlagunak

EGURENek emandako arroza egiteko lapikoa zozkatuko dugu Anbotoren Lagunen artean. Zorte on!

Anboto Komunikabideak @anboto @anbotokomunikabideak
Tel.: 946 816 558 - www.anboto.org - lagunak@anboto.org

muebles y electrodomésticos
Eguren

AURREKO ASTEKO ZOZKETAREN IRABAZLEA AQUARIUMak emandako 3 sarreratako 5 sarien irabazleak

MIKEL GARAIZABAL
AMAGOIA ORTUOZTE
LUIS MARI ONAINDIA
JASONE MANTEROLA
SONIA LARRABIDE

ZORIONAK!

“Jaiki eta oheratu arte edozerk inspiratu nazake, nigan dudan balioa da”

Urtean behin, gutxienez, Indiara joaten da berak diseinatutako jantziatarako oihalak erostera

Jostuna du ama, eta horregatik bizi izan du txikitatik moda edo jostun mundua etxean Maitane Bilbaok. Mungiarra da, Durangon bizi da eta Bartzelonan moda diseinatzaile ikasketak egin zituen. Hamar urtean Mercedes de Miguelegaz jardun du lanean. Orain bere kabuz egiten du lan. Arropa eta jantziak berriz baloratzea lortu gura du: www.instagram.com/maitanebilbao

Nolako jantziak dira zureak?

Jantzi edo arropen balioa apur bat devaluatu egin da, eta berriz baloratzea gura nuke. Hauxe da proposamena: aproposu zuretzat,

gura duzun jantzi hori sortuko dut, oihala eta tratu bereziagaz. Arropak neurrira egiten ditut, ezkontza edo ekitaldi berezi baterako zein egunerokoan erabiltzeko. Ez da berdina norberarentzat egindako pieza berezi bat izatea, kalitatezko oihala batez egindakoa, edo zurearen igualak diren 5.000 egotea. Ez dago era berdinean eginda, maitasun beragaz. Gauzak lehengo erara baloratzea gura dut, kontzientzia hartzea. Oraindik jantzen dudana aitaren gabardina dut, maitasun berezia diot. Mungia kosta sare batek egindakoa da, istorio bat duena.

Sormena ezinbestekoa da honetan. Zerk inspiratzen zaitu? Diseinatzaile edo sortzaile baten burua beti dago jardunean. Jaiki eta oheratu arte, edozerk inspiratu nazake, nigan dudan balioa da, beste zentzumen bat.

Oihala bereziak erabiltzen dituzu, Indiatik ekarritakoak.

Bai, urtean behin edo birritan noa Indiara oihalen bila. Kalitate handikoak dira, bizitasun bereziko kolorea dutenak, eta era askotan daude landuta. Miragarriak dira. Baina, hemengo oihala lauekin ere egiten dut lan.

Nolatan Indiatik?

Indiagaz maiteminduta etorri nintzen hara egindako bidaia batetik. Oihalekin, koloreekin liluratu nintzen, eta, harreman ona egin nuen bidaiari gidari izandako Niranjana Singh Rathoregaz —bere bidez lortzen ditut oihalak—. Buruari bueltaka egin nuen etxerako bidea. Leku berean gauza bera egiteaz gogaituta nengoen, eta ilusio berri bat topatu gura nuen. Baina beti beldurragaz. Ez da erraza honetan lan egitea, eta zorzea izan dut, ikasitako arloan izan dudalako lana. Barne borroka nuen: lan egonkorra nuen, lan asko egiten nuen, ama izan gura nuen... Azkenean, salto egitera ausartu nintzen.

Zeure kabuz hasi zinen?

Bai, urte bi izango dira otsailen. Hilabete baterako Indiara itzuli nintzen eta India iparraldean artisau-lana egiten duten lantokiak, oihalak, zapatak... ikusi nituen Niranjanezagaz.

Mercedes de Miguelegaz egin duzu lan aurretik. Aldea dago?

Bai, baina exijentzia hor dago beti. Ikasketak amaituta hasi nintzen praktikak egiten Mercedes de Miguelegaz. Gero, han jarraitu nuen lanean, diseinu arloan. Modan dagoena, ez dagoena, jendeak gura duena... dilema horretan murgiltzen nintzen denboraldi bakoitzean.

Zer hartzen duzu kontuan jantzi bat diseinatzerakoan?

Pertsona. Eroso duzun horrek emango dizu ondo, eta hori defendatuko duzu ondo. Umeak, gizonak, andrak, modelo itxurakoak... denetarik izan dut.

Pasarela batean ikusi gura zenuke zure jantziak?

Ez dut ilusio berezirik. Urteak egin ditut mundu horretan eta pixka bat nekatuta nago moda inguratzen duen guztiaz, presio horretaz. Modak denboraldi bat du; nik egindako arropa, aldiz, zuretzat egindako pieza berezia da, iraungitze-datarik bakoa.

Ondo jantzen gara?

Bakoitzak duen ahalmen ekonomikoa du, baina arropa merke piloa dago, eta horrek min handia egin du. Lehen hobeto jantzen ginen. Dirua nola inbertitu jakin behar dela uste dut. Gauza piloagaz betetzen dugu etxea. Pozik ematen ez duen kontsumismora garamatzate.

Gogoko diseinatzaile bat?

Koloreak eta horiek konbinatzea gustatzen zait, eta hori baloratzen dutenak ditut gogoko. Adibidez, Dries Van Noten. Bertokoen artean, Balenciaga.

LAUHORTZA

UXUNE MARTINEZ MAZAGA

Soziologoa



Gazteak eta sexismoa

Badira bi urte Gipuzkoako 13 eta 18 urteko gazteek maitasun erromantikoaz zer pentsatzen duten aztertu zutela. Emaizten artean, besteak beste, batek adierazten zuen gazteek “maitasunak haren barruan daraman gauza intrintseko bat balitz bezala onartzen dutela gatazka, baita ere indarkeriazkoa”. Honen aurrean, adituek ohartarazi ziguten ezinbestekoak direla gazteei zuzendutako sentsibilizazio eta prebentzio ekintzak genero-indarkeriarekiko pertzepzio hori bideratzeko. Eguntan hizpide izan da komunikabideetan 15 eta 16 urte bitarteko Bigarren Hezkuntzako ikasleekin egindako azterlan bat. EAEko zortzi ikastetxetako 528 ikaslek publizitate sexistaren aurrean duten jarrera behatzea izan da helburua. Estereotipo sexistak nabarmenak zirela Calvin Klein, Axe, Gucci eta beste marka batzuetako zazpi iragarki ikusi zituzten gazteek. Emaiztekin adierazi dute emakumeei buruz dauden sexu estereotipoen inguruko sentsibilitate desberdina dutela neskek eta mutilek.

Ikertzaileek ikusi dute, sexismoa onartzerako unean, mutilek gehiengoarentzat onargarria zena neska askorentzat desagokoa eta gaitzesgarria zela.

266 mutilek eta 262 neskek ikusi zituzten iragarkiak, eta gehienek arazoak izan zituzten sexismoa antzemateko. Bakarrak gazteen %34k nabaritu zuten publizitatearen sexismoa, eta sexismoa antzeman zuten gehienak neskek izan ziren. Ikerlanak kanporatu du ere nerabe asko normaltasunez bizi direla indarkeria matxistarekin eta publizitateak plazaratzen dituen genero estereotipoak benetazkotzat hartzen dituztela. Badugu zeregina gure gazteak errespetuan, autonomian eta berdintasunean hezteko ezinbestekoa baita.

Bodegas Launa
Arabar Errioxa

info@bodegaslauna.com / Tel.: 946 824 108
www.bodegaslauna.com

2017
PEÑIN GIDA
93 puntu

Gidako Errioxako krintzarik onena